

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakariak Alimentaria 2016 azokan azpimarratu du nekazaritza-elikagaiena dela Nafarroako bigarren industria-sektorea

*Bartzelonako azokara egindako bisitan, Elizalde kontseilaria izan du alboan, eta erakusketan dauden Foru Komunitateko enpresetako stand-ak bisitatu dituzte*

Asteartea, 2016.eko apirilak 26

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek [azpimarratu](#) duenez, nekazaritza-elikagaien sektorea Foru Komunitateko bigarrena da (BPGaren % 6,6), eta sektore "estrategikotzat" jo du, "produktu berritzailea eta kalitatezkoa" eskaintzen baitu.

Hala adierazi du gaur goizean "Alimentaria 2016" Janari eta Edarien Nazioarteko Azokara egindako bisitan; nazioarte-mailan antolatzen den sektoreko hitzordu garrantzitsuenetako bat da, eta Nafarroako 46 bat enpresak beraien produktuak erakutsiko dituzte Bartzelonan datorren ostegunera arte (apirilak 28).

Bartzelonako Firako zuzendari Josep Lluís Bonetekin bildu ondoren, Barkosek Nafarroako stand instituzionala bisitatzeko aukera izan du; bertan. Nafarroako 13 enpresa daude ordezkaturak. Jarraian, Foru Komunitateko marka duten gainerako pabiloietan izan da: Ekologikoa, Premium, Intercarn, Interlact, Restaurama, Intervin eta Multifoods.

Bere bisitan zehar, Lehendakariak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilari Isabel Elizalderen laguntza izan du.

### Nafarroako 46 enpresa

Alimentariaren aurtengo edizioan parte hartzen duten 46 enpresetatik, 19 Nafarroako Gobernuaren babesarekin joango dira, eta [Reyno Gourmet](#)-ek zenbait pabiloitan banatuta dituen bost stand-etan kokatuko dira; produktu ekologikoei buruzko beste bost enpresa Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Ecoalimentaria gunean izango dira, eta beste 22ak banaka, beren ekimenez parte hartuko dute.

Gainera, Multifoods pabiloian, Nafarroako kalitatezko marka guztiak aurkitu daitezke: Jatorri Deiturak (Lodosako Pikillo Piperra, Erronkariko



Gazta, Idiazabal Gazta, Nafarroako Ardoa, Nafarroako Olio, Errioxako Ardoa eta Cava); Adierazpen Geografiko Babestuak (Nafarroako Zainzuriak, Tuterako Orburua, Nafarroako Aratxea, Nafarroako Arkumea eta Nafarroako Patxarana); bai eta artisautzako elikagaiak, ekoizpen ekologikoa eta integratutako ekoizpena ere.

Nafarroako Gobernuako enpresa publiko [INTIA](#) (Nekazaritza Elikagaien Teknologia eta Azpiegiturak) arduratu da Foru Komunitateak azokan izango duen 410 m<sup>2</sup> baino gehiago prestatu, muntatu eta desmuntatzeko lan guztia antolatu, koordinatu eta ikuskatzeaz; horretarako, 100.000 euroko aurrekontua erabili da.

### **Nafarroako bigarren industria-sektorea**

Nafarroak 1994. urtetik parte hartzen du, eta bertan nekazaritza-elikagaien industriako bariedade, kalitate eta profesionaltasunaren lagin adierazgarri batekin agertu da; industria-sistema guztian garrantzi handiena duen bigarren jardura da, hau da, Foru Komunitateko oinarri sozioekonomikoetako bat bihurtu da



Barkos Lehendakaria azokaren liburuan sinatzen, besteak beste bertako zuzendaria eta Elizalde kontseilaria alboan dituela.

Zehazki, nekazaritza-elikagaien sektorea Nafarroako BPGaren % 6,6 da. Sektoreari lotuta 1.250 enpresa daude, eta haietan landa-eremuan integratutako 25.000 lanpostu daude.

Gainera, nekazaritza-elikagaien industriak lurraldea antolatzen laguntzen du eta, bereziki, ureztatzeak inguruko industriak erakartzen ditu, lekua erraz aldatzen ez duten enpresak eta zonaldean errotzen direnak.

### **Produktu nafarren dastatzeak**

Alimentariaren balio bereizgarrietako bat bere jardura eta gune gastronomikoen programa da. Horregatik, Reyno Gourmet-ek Multifood pabiloian (P2-D98) duen stand-ean ere hainbat pintxo dastatu ahalko dira; horrez gain, sukaldaritza-erakustaldien nahiz Nafarroako produktuen tratamenduaren programa bat egingo da Cadreitako Marisol jatetxeko Jose Mari Jimenez sukaldariaren eskutik. Jatetxe bereko taldeak prestatutako pintxoetan ondorengo produktuak daude: zainzuri freskoak, Lodosako pikillo-piperrak, Tuterako orburuak, aratxea eta olio, besteak beste.

### **Reyno Gourmeteko edo haren kalitateko marka bateko enpresa nafarrak**

Reyno Gourmet-ek azokan dituen bost stand-etan 19 enpresak izango dute ordezkaritza, Nafarroako kalitatezko markez gain. Intervin-en (ardo eta destilatuen pabiloia); Nafarroako Ardoa Jatorri Deiturako Kontseilu Arautzaileak parte hartuko du enoteka batekin, eta bertan Nafarroako 30 ardo baino gehiago dastatu ahalko da (zuriak, gorriak eta beltzak), bai eta Inurrieta eta Vega del Castillo upategiak ere. Intercam-en (haragi-produktu eta deribatuen pabiloia): Embutidos Galar eta Vacunos Puente. Restaurama-n (sukaldaritzari buruzko pabiloia): Fridela. Interlact-en (esnekien produktuei eta deribatuei buruzko gunea): Lácteos Goshua. Azkenik, Multifoods-en (gozoki, kontserba eta olioaren pabiloia): Aceites La Maja, Aceites Sandua, M. Etxenike, Conservas Anko, Conservas Pedro Luis, Conservas El Navarrico, Aceitunas El Cabildo, Conservas Vela, Caramelos El Caserío, Pastas Belsi, Harivenasa, Envasados Eva eta Coposa.

Gainera, produktu ekologikoen beste 5 enpresa Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Ecoalimentaria gunean daude, Nafarroako Ekoizpen Ekologikoaren Kontseiluaren alboan. Honako hauek: Pastas Martinelli, Finca La Noria-Bio Trailla, Finca Sarbil-Sal D'Oro, Frisafarán eta Ékolo. Bestalde, Coposa eta Conservas Pedro Luis (Multifoods pabiloian standák dituzte), ekoizpen ekologikorako gunean, ekoizpen-metodo horrekin egindako produktuekin.

## Modu independentean parte hartutako enpresak

Halaber, beste 22 enpresa gehiago joan dira beren ekimenez, erakusketako bost pabiloietako batera: Bodegas del Romero, Castillo de Monjardín, Grupo La Navarra, Licores Baines, Marqués de Montecierzo, Marqués del Atrio S.L., Manzanos Enterprises, S.L., Embutidos Goikoa, Papeles El Carmen, Tutti Pasta, Productos Trevijano, Florette, Urrobi, Quesos La Vasco Navarra, Conservas Angel Ria, Impex Medrano, Conservas Casa Alicia de Lodosa, S.L., Productos selectos Adolfo Sádaba, MCA, Spain, S.L., Conservas La Catedral, Abbae de Queiles, eta Sanygram S.L.

## Alimentaria zifretan

70 herrialdeetako 4.000 enpresak parte hartzen dute Alimentarian, eta Espainiako gastronomia, elikagai eta edarien nazioarteko erakusleho nagusia da. Azokak (bi urtetik behin antolatzen da) 40. urteurrena betetzen du aurten, eta 140.000 profesional inguru erakartzen ditu, % 35, atzerrikoak.

Oraingoan, Alimentaria bost aretotan egituratuko da: Interven (ardoak eta destilatuak), Intercarn (haragi-produktuak eta deribatuak), Restaurama (sukaldaritza), Interlact (esnekiak eta deribatuak) eta Multiple Foods (gozokiaren produktu anitzak, kontserbak, olioak eta Premium produktuak). Hala, merkatuko tendentziak islatu nahi dira, sukaldaritza eta gastronomiaren azokako kokapena indartu eta banaketako profesionalen bisita erraztu, hornitzaile eta produktu berrien bila azokara doazen janari-edariak saldu eta inportatzeko kanalak. Erakusketarako nahiz ekintza osagarrietarako 81.000 m2 azalera dago bertan.

## Galería de fotos



Lehendakariak Nafarroako enpresen erakusketak bisitatu ditu.